

IKASTETXEETAN EMATEN ARI DIREN EGOEREI AURRE EGITEKO KUDEAKETA PROPOSAMENAK

OHARRA: Kontuan izan behar dugu ematen ari diren egoerak ezin ditugula konparatu konfinatuta egon ginen egoerekin. Izan ere, oraingo honetan hainbeste familia etxetik kanpo lanean ari dira eta kasu askotan ezin izango dute euren seme-alabekin momentu oro egon. Horrek esan nahi du, **eskolatik eskatzen ditugun jarduerak edota eginbeharrekoak ikasleek bakarrik egin ahal izatekoak izan behar dutela. Ahal den heinean familiekin adostu zer nahiago duten, aukera desberdinak egon daitezke, familia egoera desberdinak baitaude.**

<u>EZAGUTZEN DITUGUN EGOERAK</u>	<u>IRTENBIDE POSIBLEAK</u>
1.- LHko GELA OSOA KONFINATUTA	<ul style="list-style-type: none"> - Online ordutegia murriztu. - Irakurketa eta idazketa garatu gabe dagoen kasuetan, narrazioen bidez luzatu proposamen didaktikoak. - Talde txikietan aritzeko moduan ordenatu ordutegia. - Bideo eta audioak grabatu mugikorrek erabiliz lantzeko modukoak - Online banakako saioak astean bitan... - Astebeteko proiektu txikietan bildu etxean egiteko lanak. - Arlo espezifikoak anbitoka eta modu ludiko batean jorratu. - Ikasle bakoitzaren beharrak ikusita, batzuetan banakako saioen bitartez indartze neurriak antolatu. - Classroom, Drive, Meet ,... talde txikitan aritu. - Chromebook-ak edo Eki digitalizatuta baldin badaukate bide horretatik lan egin dezakete. - Classroom edo Drive-ko dokumentuen bidez lan egin dezakete.
2.- LHko gela bereko ikasle erdia konfinatuta eta beste erdia eskolan.	<p><u>LH 1, LH 2, LH3 , LH 4, LH5 eta LH6</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Etxean egiteko lanak astebetez antolatu. - Online banakako saioak jarraipena egiteko - Gainontzeko gelakideekin MEET saioen bat antolatu - Irakaslearen ordutegian pare bat saio etxean daudenei dedikatzeko antolatu - Saio teorikoak, azalpenak, ... grabatu etxean daudenei azalpena luzatzeko. - Lehentasunak markatu eta espezifikoen, PT.... ordutegiak moldatu etxeko arreta kudeatu ahal izateko. - Beste kasuren baten etxekoekin ordutegia mantendu da eta 3. zikloko on-line saioak eman zaizkie, horretarako ikastetxearen antolakuntza (ordutegiak...) moldatu behar izan dituzue, hau da, irakasleak

	<p>dituzten “horas de libre disposicion al centro” delakoetatik ordutegi bereziak antolatu dira. Etxean daudenei klaseak eman zaizkie eta horretarako egun bakoitzean irakasle desberdinak hartu dute parte.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasgai tronkalak eta zehar konpetentziak lehenetsi dira eta musika,plastika, gorputz hezkuntza, baloreak...proposamen bezala luzatu dira ordutegitik kanpo ikasleek jardueraren bat egin zezaten, honek ordutegiaren antolakuntza errazten du.
<p>3.- LHko ikasle batzuk konfinatuta.</p>	<p>Maila guztietan, beharren arabera erabakiak hartu dira, kasu anitzak baitaude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batzuk 2 egun egon dira, beste batzuk 5 egun , beste batzuk 10..... - Familiarekin adostu zelan kudeatu egoera, eta familiaren egoera, nahia...arabera erantzuna eman
<p>4.- HHko GELA OSOA KONFINATUTA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Familiei gomendio-orokorren zerrenda bat prestatu eguneroko errutinak lantzeko. - Ikastetxeko sites-aren/blog bitartez jarduera ezberdinak, jolasak, abestiak, koreografiak, ipuinak, gelan aurrera eramaten diren errutinak, etab. proposatu. - Astero email baten bitartez proposamen bat bidali (Tailerrak, erronkak, esperimantuak,...) denbora emaneguz gurasoen laguntzaz burutu ahal izateko adib: 5-10 egun. Eurek egiten dituzten lanekin argazki edo bideo montaiak egin beste ikaskideek ikusi ahal izateko. - Matematika lantzeko jolas zehatzak edo AGREGA jolasen helbideak helarazi. - Saioren bat meet edo bideo-konferentziaz egiteko aukera eman 3/4ko taldeak osatuz. Modu honetan, gelan egiten ari denari jarraitzen diote eta irakasle-ikasle eta ikaskideen arteko harremana sustatu eta mantendu egiten da..
<p>5.- HHko ikasle batzuk konfinatuta</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Astean zehar jarduera bereziak, lantzen diren ipuinak, abestiak, jolasak, etab. sites-ean igo. - Email baten bitartez egunean edo astean zehar gelan egin denaren berri familiei eman eta lantzen ari diren ipuinak, abestiak, esperimentuak, jolasak, etab. etxean ere egitera animatu. - Gelan burututako jarduera ezberdinetan (plastika, esperimentuak, patioko jolasak, errutinak, etab.) edota aurrera eramaten diren saioetan (psikogela, ingelesa, etab.) argazkiak/bideo laburrak atera gero etxean konfinatuta daudenei bidali. Horrela, bai eskolako irakasleekiko zein haien ikaskideekiko kontaktua bermatzen dugu. Etxean daudenei ere gauza bera egitea proposatu zaie, gero besteek gelan ikusi ahal izateko.